

2017KO UZTAILAREN 26AN UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIZKO BILKURAREN AKTA.

Udaletxeko Bilkura Aretoan, idazpuruko eguneko arratsaldeko zazpirak eta hogeita hamar minutu direnean, Alkateak deituta eta lehen deialdian, Udalbatzarra elkartzen da, jarraian adierazten gai zerrendarekin ohizko bilkura egiteko:

- 1.- AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (MAIATZAREN 22KO BILKURAREN AKTA).
- 2.- ZEGAMAKO UDALAK ADOSTUTAKO ZENBAIT LURSAILEN TRUKATZE AKORDIO BERRESTEARI BURUZKO ERABAKIA.
- 3.- UDAL LANGILEEN SOLDATA IGOERA. EUDEL-EN GOMENDIOARI BURUZKO ERABAKIA.
- 4.- UDALHITZ HITZARMENARI GIZA BALIABIDEEN PLAN ESTRATEGIKOAREN BAILOA EMATEARI BURUZKO ERABAKIA.
- 5.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAREN ETA ZEGAMAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, INFORMAZIOAREN, ADMINISTRAZIOAREN ETA KUDEAKETA ELEKTRONIKOAREN ESPARRUKO ZERBITZUAK ELKARRI EMATEKO
- 6.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.
- 7.- GALDE ERANTZUNAK.

ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

ALKATE-LEHENDAKARIA

Joseba Izaguirre Arocena Jna. (Zegama Lantzen).

ZINEGOTZIAK

Maria Pilar Elorza Inchausti And. (Zegama Lantzen).

Izaskun Igoa Arizcorreta And. (Zegama Lantzen).

Ibon Zabaleta Urbizu Jna. (Zegama Lantzen).

Juan José Gorrochategui Larrea Jna. (Zegama Lantzen).

Urko Gomez Ropón Jna. (EH Bildu).

Maria Luisa Gorrochategui Irastorza And. (EH Bildu).

EZ ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

Imanol Garmendia Iruretagoyena Jna. (EH Bildu). Ez etortzearen arrazoia ematen da.

Olaia Elorza Iñarra And. (EH Bildu). Ez etortzearen arrazoia ematen da.

Idazkaria, Igor Alustiza San Vicente.

Idazkariak, azkeneko ohiko bilkuratik, Alkateak hartutako ebazpenen berri ematen du:

1.- AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (MAIATZAREN 22KO BILKURAREN AKTA).

Alkateak, 2017ko maiatzaren 22ko bilkuren aktan jasotakoari buruz nolabaiteko oharpenik adierazi nahi duten galdetzen die batzar-kideei.

Ez da inolako oharpenik adierazten, eta beraz, aho batez onartutzat gelditzen da adierazitako akta.

2.- ZEGAMAKO UDALAK ADOSTUTAKO ZENBAIT LURSAILEN TRUKATZE AKORDIO BERRESTEARI BURUZKO ERABAKIA.

Espedientea ikusirik.

Zegamako Udaleko Udaleko Udalbatzarrak, 2017ko maiatzaren 7an egindako bilkuran honako erabaki hauek onartu zituen:

“ 4.- H.O. 2.025.1 zenbakidun “Zegamakomendia” mendiaren “Arranoaitz” unadan, Zegamako Udaleko Lursaila (4. poligonoa 79. lursaila) Francisco Muñoa Agirre jaunarenak diren lursailekin trukatzea eta udal jabetzako lursailetan kalifikazio aldaketa Foru Aldundiari eskatzea.”

“ 5.- H.O. 2.025.1 zenbakidun “Zegamakomendia” mendiaren “Astio Saader” unadan, Zegamako Udaleko Lursaila (23. poligonoa 42. lursaila) Severiano Etxeberria Ariztimuño jaunarenak diren lursailekin trukatzea eta udal jabetzako lursailetan kalifikazio aldaketa Foru Aldundiari eskatzea.”

“ 6.- H.O. 2.025.1 zenbakidun “Zegamakomendia” mendiaren “Arranoaitz” unadan, Zegamako Udaleko Lursaila (4. poligonoa 75-76 lursailak) Andrew Dale Bonikowsky jaunarenak diren lursailekin trukatzea eta udal jabetzako lursailetan kalifikazio aldaketa Foru Aldundiari eskatzea.”

Era berean, Zegamako Udaleko Udaleko Udalbatzarrak, 2017ko maiatzaren 21ean egindako bilkuran honako erabaki hauek onartu zuen:

“ 1.- H.O. 2.025.1 zenbakidun “Zegamakomendia” mendiaren “Armuñoeta” unadan, Zegamako Udaleko Lursaila (27. poligonoa 205. lursaila) Joseba Arrizabalaga Arrietarenak diren lursailekin trukatzea eta udal jabetzako lursailetan kalifikazio aldaketa Foru Aldundiari eskatzea.”

eskatzea.”

Adierazitako erabakiak jaso ondoren, Gipuzkako Foru Aldundiak, Foru Diputatuak 2010eko irailaren 23an emandako Aginduaren arabera, adierazitako lursailak Herri Onurako Mendien Katalogotik ateratzeko erabakia hartu zuen, jasotako berriak inskribatuz.

Nolanahi ere, adierazitako trukatzeko eragiketarako, zegokion notari-eskritura gauzatu gabe gelditu zirela ikusirik, une honetan adierazitako prozedurari ekin zaio eta zentzu horretan, adierazitako erabakiak berrestea beharrezkoa egiten da.

Adierazitako erabakiak ikusirik, **Udalbatzarrak, aho batez, honako hau erabakitzen du:**

Lehenena.- Adierazitakoaren arabera, Udalbatzarrak, 2007ko maiatzaren 7an eta maiatzaren 21ean hartutako trukatzeko eragiketaren erabakiak berrestea, bertan adierazitako balioak mantenduz.

Bigarrenena.- Joseba Izagirre Arozenari, Udal honetako Alkatea, ekintza horiek aurrera eramanean ahal izateko beharrezkoak diren agiri publiko edo pribatuak egiteko aginpidea ematea, beharrezkoak izanez gero, erabaki honen bidez inplizituki onartutzat ematen diren, dagozkion aurretiazko bereizketa edo, bere kasuan, elkartzeko egintzak, bai publikoak baita pribatuak ere, aurrera eramateko barne.

Hirugarrenena.- Erabaki hau doakienei jakinaraztea.

3.- UDAL LANGILEEN SOLDATA IGOERA. EUDEL-EN GOMENDIOARI BURUZKO ERABAKIA.

Udalbatzak 2008ko urriaren 13an onartu zuen Euskadiko toki-erakundeetako langileen 2008-2010rako lan-baldintzak arautzen dituen akordioa.

EUDEL erakundetik, adierazitako hitzarmenaren negoziatioari buruzko informazioa helarazten da.

Zentzu honetan, jakinarazten da 2017ko ekainaren 28an, 2017. urteko Estatuko Aurrekontu Orokorren ekainaren 27ko 3/2017 Legea argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean.

Langileen gastuei buruzkoa den lege horren Hirugarren Tituluak honako hau xedatzen du 18. artikuluan. Bi:“2017. urtean, sektore publikoko langileen ordainsarien igoera globala ez da inola ere izango 2016ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariak baino %1 handiagoa, konparatutako bi denboraldien homogeneotasunari dagokionez, hala langileei begira, nola antzinakotasunari begira”.

2017ko uztailaren 13an izandako bileran, EUDELen Batzorde Eragileak hori aztertu du, eta komenigarritzat jo du EAEko udaletan artikulua horren interpretazioa eta ezarpena erraztea eta bultzatzea, langile publikoentzat ahalik eta onuragarrien izan dadin. Gainera, hori lagungarria izan daiteke UDALHITZ 2017 Akordio Arautzailearen negoziatioari begira. Horiek horrela, udalei, mankomunitateei eta gainerako erakunde publikoei GOMENDATZEN DIE neurri hau onar dezaten:

2017ko ekitaldian, sektore publikoko langileen ordainsariak %1eko igoera izatea, 2016ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariekin alderatuta, konparatutako bi denboraldien homogeneotasunari dagokionez, hala langileei begira, nola antzinakotasunari begira, 2017. urteko Estatuko Aurrekontu Orokorren ekainaren 27ko 3/2017 Legeak 18.2 artikuluan jasotako aukerarekin bat etorrira.

Neurria ezartzean, dagozkion doikuntzak egin beharko dira, ordainsarien igoerak urte honetako urtarriletik aurrera izan ditzan ondorioak.”

Gomendioa aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehena.- 2017ko ekitaldian, Zegamako Udaleko langileen ordainsariak %1eko igoera izatea, 2016ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariekin alderatuta, konparatutako bi denboraldien homogeneotasunari dagokionez, hala langileei begira, nola antzinakotasunari begira, 2017. urteko Estatuko Aurrekontu Orokorren ekainaren 27ko 3/2017 Legeak 18.2 artikuluan jasotako aukerarekin bat etorrira.

Bigarrena.- Adierazitako igoeraren aurreikuspena 2017ko Udal Aurrekontuan jasota, eta ondorioz, igoera bideratzeko dagokion doikuntza eginga dago, ordainsarien igoerak urte honetako urtarriletik aurrera izango duelarik ondorioa. Horrenbestez, igoera hori abuztua edo iraileko ordainsarrietan bideratuko da.

Hirugarrena.- Doakienei erabaki hau jakinaraztea.

4.- UDALHITZ HITZARMENARI GIZA BALIABIDEEN PLAN ESTRATEGIKOAREN BALIOA EMATEARI BURUZKO ERABAKIA.

Udalhitz hitzarmenari, Giza Baliabideen Plan Estrategikoaren balioa emateari buruzko proposamena aurkeztu da, adierazitakoa, Ogasun eta Pertsonalaren batzordeak, 2017ko uztailaren 18an aldeko iritzia jaso zuelarik.

Horrenbestez, espedientean jasotakoaren arabera, eta udal Idazkariaren legezko aipamenak ezaguturik, proposamenaren xedea eta arrazoiak aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, Alkatearen abstentzioarekin, Zegama Lantzen taldeko gainontzeko lau kideen eta EH Bildu taldeko etorritako bi kideen aldeko botoekin, honako hau erabakitzen du:

Lehena: Udalbatzak 2008ko urriaren 13an onartu zuen Euskadiko toki-erakundeetako langileen 2008-2010rako lan-baldintzak arautzen dituen akordioari Zegamako Udaleko Giza Baliabideen Plan Estrategikoaren balioa ematea, bereziki XI. Kapituluaren adinagatik borondatezko erretiroaren inguruko xedapenei.

Bigarrena: Erabaki hau aplikagarria izango da 2017ko ekitaldiaren hasieratik.

Hirugarrena: Xedatzea Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitara dadin.

5.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAREN ETA ZEGAMAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, INFORMAZIOAREN,

ADMINISTRAZIOAREN ETA KUDEAKETA ELEKTRONIKOAREN ESPARRUKO ZERBITZUAK ELKARRI EMATEKO

Udalbatzarrak, 2016ko ekainaren 14an egin zuen bilkuran, "informazioaren, administrazioaren eta kudeaketa elektronikoaren esparruko zerbitzuak elkarri emateko, Zegamako Udalaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren artean hitzarmena sinatzea" onartu zuen.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Modernizazio Zerbitzutik, jakinarazten da, Eusko Jaurlaritza EAeko administrazioen artean datu eta informazio trukaketa zerbitzuak ahalbidetuko dituen elkarreragingarritasun nodo bateratua garatzen ari dela, eta horretarako beharrezkoa du Euskal Autonomia Erkidegoko udalekin hitzarmen berri hau sinatzea datuen trukaketa era egokian arautuko dela bermatzeko. Lurralde Historiko bakoitzean Foru Aldundiak arduratuko gara udalei hitzarmen berria bidali eta sinadurak jasotzeaz.

Hitzarmen berriaren helburuak, xedeak eta betebeharrak aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, Zegama Lantzen taldeko etorritako bost zinegotzien eta EH bildu taldeko etorritako bi zinegotzien aldeko botoekin, aho batez, honako hau adierazten du:

Lehena.- Informazioaren, administrazioaren eta kudeaketa elektronikoaren esparruko zerbitzuak elkarri emateko, Zegamako Udalaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren artean hitzarmena sinatzea onartzea.

Bigarrena.- Alkate-lehendakariari ahalmena ematea aipatutako hitzarmena Zegamako Udalaren izenean eta ordezkarietan sinatzea.

6.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.

Idazkariak, azkeneko ohiko bilkuratik, Alkateak hartutako ebazpenen berri ematen du:

- 06/0717 erabakia, uztailaren 10ekoa, zenbait fakturen ordainketa onartuz.
- 07/0717 erabakia, uztailaren 10ekoa, 4055 fakturen erlazioa onartuz, guztira 45.136,62 eurokoa.
- 08/0717 erabakia, uztailaren 11koa, Elizalde, Olaberria eta Gorospealdea auzoetako argiteria jartzea Leycolan S.A.L. enpresari esleituz, 12.338,00 eurotan (gehi 2.590,98 BEZ).
- 09/0717 erabakia, uztailaren 12koa, Libardo Pelaez jaunari, todoa jartzeko baimena emanez.
- 010/0717 erabakia, uztailaren 12koa, Jose Javier Martinez Medranori, garajeko atea aldatzeko lan baimena emanez.
- 011/0717 erabakia, uztailaren 14koa, Ostaturua eta Kasinoko alokairu fakturak onartuz.
- 012/0717 erabakia, uztailaren 18koa, Gipuzkoako Foru Aldundiari Idazkari-Kontuhartzaile lanpostua betetzeko deialdia hutsik geratu dela jakinaraziz.
- 013/0717 erabakia, uztailaren 18koa, "Arrano Talleres Electromecánicos S.L." enpresak kolektorera isurtzeko eskatutako baimena onartuz (Gipuzkoako Urak-en aurretiazko txostenarekin)
- 014/0717 erabakia, uztailaren 18koa, zenbait fakturen ordainketa onartuz.

7.- GALDE ERANTZUNAK.

Ez dira egiten.

Aztertzeko gai gehiago ez dagoenez, hasieran aipatutako eguneko arratsaldeko zortzirik eta hamar minutu direnean Alkateak bilkurari amaiera ematen dio, esandakoa jasoarazteko, nik egiaztaturiko eta Alkateak sinaturiko akta hau egiten dudalarik.

Eginbidea.

Aurrean transkribaturiko akta, orri dituela jasotzeko, zenbakidun paperan zenbakitik zenbakira eta Udalak emandako zenbakietan, zenbakitik zenbakira jasota geratu delarik.

Zegama, 2017kok

**O.E./ V°B°
ALKATEAK/EL ALCALDE**

Diligencia.

Para hacer constar que el acta que antecede tiene folios, numerados del al en número de papel timbrado y del al en numeración dada por el Ayuntamiento.

Zegama a de de 2017.

IDAZKARIAK/ EL SECRETARIO